



## GURE BAILARAKO PRODUKTUAK



**Baserrikoa Debabarrena** ekimen honen bidez Debemen eta Debabarreneko udalek zuzeneko salmenta eskaintzen duten ekoizleak eta salmenta zuzeneko puntuak sustatu nahi dira.

Gure helburua kontsumitzailea produktu hauek duten balio erantsiaz jabetu eta bertako ekonomian bultzada bat ematea da.

Baserrietan ekoizten diren produktuak kontsumitzea denon onerako da, bertan bizi eta lan egiten dutenentzako eta landa eremuko paisaiaz, ondareaz eta produktuez gozatzeko dugun herritar orontzako.

Bide guztiak jorratu nahi eta behar ditugula uste dugu: kaleko salmenta, azokak, merkatu bereziak, salmenta zuzena, kontsumo taldeak, baserrian bertan erosteko aukera, eta nola ez online salmenta.

## GURE AZOKAK ESKAINTZEN DUTE

### NUESTROS MERCADOS OFRECEN

- Un lugar de encuentro vibrante entre baserritarras y consumidores.
- Una oportunidad para hacer algo juntos para nuestra comarca.
- Un recurso para aprender sobre alimentación y agricultura.
- Un escaparate para la agricultura del Debabarrena.

*Baserritar eta kontsumitzaileen arteko topalekua. Gure eskualdearen alde, elkarlanean aritzeko aukera. Elikadura eta nekazaritzaren inguruan ikasteko aukera paregabekoa. Debabarrenako nekazaritzarentzat erakuslehi paregabekoa.*

# 10 ARRAZOI ON BUENAS RAZONES

para consumir productos locales



WWW.BASERRIKOA.COM

- 1 Garaian garaiko produktuak dira  
Son productos de temporada
- 2 Freskoagoak dira  
Son más frescos
- 3 Zaporetsuagoak dira  
Son más sabrosos
- 4 Osasungarriagoak dira  
Son más sanos
- 5 Jatorria ezagutzen da. Nork ekoiztua diren jakitea atsegina da  
Sabes de dónde vienen tus alimentos y quién los ha producido, y esto siempre es reconfortante
- 6 Gure ingurumena eta paisaia babesten eta ondare eta nortasun ezaugarriak kontserbatzen laguntzen dute  
Ayudamos a proteger nuestro entorno rural y el paisaje, así como el patrimonio y nuestras señas de identidad
- 7 Ingurumenarekiko jasangarriagoak dira  
Estos productos son más sostenibles
- 8 Tokiko ekonomia laguntzen dute  
Favorecen el desarrollo de la economía local
- 9 Uzta jaso berriak izaterakoan gehiago irauntzen dute  
Por estar recién recogidos, nos duran frescos más tiempo
- 10 Lurren garapen iraunkorrean laguntzen da eta ondorioz ingurune naturala zaintzen da  
Contribuimos al desarrollo sostenible de las tierras, y por tanto se protege nuestro medio rural



Kontsumitu produktu freskoak, bertakoak eta garaian garaikoak.  
Consume fresco, local y de temporada.



WWW.BASERRIKOA.COM





WWW.BASERRIKOA.COM

## MERKATU ETA AZOKAK

WWW.BASERRIKOA.COM

## BASERRIKOA DEBABARRENA

**Baserrikoa Debabarrena**, eskualdeko ekoizle eta Debemenek aurkezten dizuegun marka da. Nortzuk garen eta eskaintzen dizkizuegun produktuak modu errazago batean identifikatu ditzazuen. Produktu fresko, bertako eta garaian garaikoak.

Gaur egun kontsumitzaileok geroz eta arduratsuagoak gara eta garrantzi handiagoa ematen diogu kontsumitzen ditugun produktuen kalitate, jatorri, ekoizteko modu eta nola ez ingurugiroaren zaintza eta osasunari. Bertako eta garaian garaiko produktuak kontsumituz eskaera horiek asetzen ditugu.

Momentu aproposa dela uste dugu, garain garaiko eta bertako produktuak eskaintzen dizkiguten onurak finkatu eta indar gehiago hartu dezaten. Baserritarra eta kontsumitzailearen artean bien aldeko erlazio bat eraikiz, biek sentitu dezaten, herri bizi eta nekazal ingurune iraunkor baten alde lanean ari garela. Eta batez ere zuzeneko salmenta eta garaian garaiko bertako produktuak kontsumitzea guztiontzat onuragarri dela ikas dezagun.

*Baserrikoa Debabarrena es el distintivo que os presentamos los productores de la comarca para que podáis identificarnos con facilidad en las ferias y mercados que asistimos, así como el producto que ofrecemos: fresco, de nuestra comarca y de temporada.*



*Zeure herrian bertako produktuak kontsumitzeko zeintzuk diren jakin nahi baduzu, bisitatu ezazu gure web gunea, bertan informazio gehiago eskaintzen dizugu.*



Nuestra presencia más importante está hoy en día en los mercados y las ferias que se celebran a lo largo del año en nuestros pueblos. Se trata de un lugar de encuentro vibrante entre el mundo rural y el urbano. Constituyen para nosotros los baserritarras un escaparate de lo que tan cuidadosamente cultivamos y elaboramos, a la vez que nos ofrece una oportunidad de desarrollar relaciones personales con vosotros, los consumidores, y de premiar vuestra fidelidad.

Conscientes de que la forma de vida actual marca ritmos a menudo incompatibles con los horarios de los mercados, nuestros productos también te los ofrecemos a través de otras formas de venta directa: **los grupos de consumo**, que te llevan en un horario y a un punto determinado la compra semanal; **la venta a domicilio**, **la venta en el propio caserío** y, por supuesto, **la venta on line**.

WWW.BASERRIKOA.COM

*Gure agerpen garrantzitsuenak gaur egun urtean zehar geure herrietan ospatzen diren azoka eta merkatuetan egiten ditugu. Landa munduak eta hiriguneak bat egiten duten lekua litzateke berau.*



	OHIKO MERKATUAK	AZOKA BEREZIAK
<b>Deba</b>	Egunero	Soro Feria, Urtarrileko lehen larunbata Merkatu txikia, 1. larunbatean Maiatzetik Urrira
<b>Eibar</b>	Egunero	Euskal jaia, Maiatza San Andres, Azaroak 30
<b>Elgoibar</b>	Ostegunero	Hil bukaerako Feria, hilabeteko azken larunbata Trinitate azoka Gabon Zahar, Abenduko azken larunbara
<b>Mendaro</b>		Kontzezio azoka, Abendua
<b>Mutriku</b>	Egunero	Santo Tomas azoka, Abendua
<b>Soraluze</b>	Egunero	Gaztañerre, Azaroko 2. larunbata

**Gaur egungo bizi erritmoa azoka eta ferien ordutegiakin bateraezina dela ohartuta** gure ekoizleek salmenta zuzeneko zerbitzuak ere eskaintzen dituzte: kontsumo taldeak, non asteko erosketa ordutegi eta leku jakin batetara eramaten dizuten; etxer etxeko salmenta; baserrian bertan erosteko aukera, eta nola ez on line erosketa.

Bertako produktuak kontsumitzeko dituzun aukerez gehiago jakin nahi baduzu, **informa zaitetz** geure web orrian edo eta Debemen elkartearekin harremanetan jarriz.

WWW.BASERRIKOA.COM  
DEBEMEN ELKARTEA, Tel. 943 74 40 67

